



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna : 2014-3-10

Hasiera-amaiera : 18: 30 – 20 : 45

Tokia : Batzar-gela 1

Bertaratuak:

Ongizateko batzorde burua: Rakel Elu

EAJ : M^a Dolores Etxano

ADEMBI : Idoia Alegria

Antiguako Ama : Rosario Ducay

GORABIDE : Begoña Zelaia
Inmaculada Laka

Bolondresak (Janari eta beste premia batzuk asetzen laguntzen dutenak):
Araitz Urrosolo
Juana Cabrera

GAI ZERRENDA

- 1.- Aurreko aktaren onarpena
- 2.- 2014ko Gizarte Ongizate eremurako aurrekontu proposamena
- 3.- Amankomunitatutako Gizarte Zerbitzuak eta Ongizateko beste eremuen antolaketa berrirako landutako ekarpena
- 4.- Taldeek euren egutegian duten udaberriko egitarauaren berri ematea eta beharrianak aurreikustea
- 5.- Eskari-galderak



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Esandakoak :

1.- Abenduaren 12ko aktari buruz, bertaratuetan M^a Dolores Etxanoren izena falta dela onartu da eta hori zuzendu ostean, aho batez onartu da.

2.- Martxoko osoko bilkurara eramango da aurrekontu proposamena. Gaurkoan, gure herriko gizarte ongizate eremuko aurrekontuak azaldu dira (Artibai egoitzakoa, Ongizate batzordekoa, Antiguako Amakoa eta Amankomunazgorako utziko den aurrekontu zatia). Artibai egoitzari buruz, ea zenbat diren diru sarrerak galdetu du M^a Doloresek, bai egoliarrek ipintzen dutena eta baita Foru Aldunditik jasotzen dena. Hurrengo bilerarako honi buruzko datuak ekarriko dituela esan du batzordeburuak. Ez da egon honi bueruzko galderarik gehigo eta ontzat eman da proposamena.

3.- Hirugarren puntua hasi aurretik, Araitzek udaletik bideratzen diren ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartelaren kontzeptuan zenbat plaza dauden Ondarrun jakitea nahiko lukeela. Horrez gain, berak ezagutzen dituen kasuak ezagututa, komenigarria ikusten duela aparkeleku hauek nominatiboak izatea.

Batzordeburuak zera azaldu du: 2013an, azken urteotan emandako baimenen zerrendaren berrazterketa egin eta ondorioz garbiketa egiteko premia zegoela ikusita, Gizarte Zerbitzuetan, padroiko datuekin alderatu eta datuak gaurkotu zirela. Baita, urtero berraztertzekeo ardura hartu zela.

Horrela, udaltzainek ere, herriko erabiltzaileen datu gaurkotuak izango dituela urtero.

Hala ere, beste herrietatik datozenen egoera ezingo dela kontrolatu azaldu da. Hau zaila dela kontrolatzea eta komenigarria litzatekeela, herri guztietan halako jarraipena egitea baina ez dagoela gure eskuetan.

Nominatiboa izatearen eskaerari, herrian dauden plazak baino erabiltzaileak gehiago egonik, zaila dela lehenestea zein den premia gehiago edo gutxiago duena. Argitu da baita ere, txartel hauen eskaera Gizarte Zerbitzuetatik egin arren, Foru Aldundia dela azken batean ematen dituen edo ez eta ezintasuna portzentai altuan dutenei bakarrik ematen diela.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Amankomunazgoan aurkeztu nahi den amankomunatatutako gizarte zerbitzuei buruzko txostena aurkeztu da.

Aurreko batzordean aurkeztu zen ildoari jarraitzen dion proposamena dela azaldu du batzordeburuak.

Lehenik eta behin bereiztu behar dela 7 herri gairela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak amankomunatatuta ditugunak, 10 herri beste zerbitzu batzuk ditugunak (aurreko legean oinarritzen ziren zerbitzuak baina gaur egun beste sail batzuk hartu dituzten arren, ematen jarraitzen ditugunak) eta 12 herri, gizarte zerbitzuekin zerikusirik izan ez arren, gizarte zerbitzuetan lantzen den Gaztebiz proiektua.

Hau argitu ondoren, txosten honen ildo nagusia, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak sendotzea dela, herritarren lehenengo atea berauek direlako eta udalaren kompetentzia izanik, derrigorrean bete behar direlako. Helburu hau betetzeko, daukagun aurrekontua eta giza baliabideekin landutako txostena dela.

M^a Dolores Etxanok bere desadostasuna azaldu du. Amankomunazgoan bertan adostu behar direla adostu beharrekoak, Gizarte Zerbitzuen planifikazioa amankomunatatuta dagoelako eta beste herriekin adostu behar delako guztia. Ez duela ulertzen zergatik egiten den horrela, herritik planifikatu nahi horren zergatia.

Batzordeburuak azaldu dio hala izan daitekeela baina herriko osoko bilkuran onartu zela bere gizarte zerbitzuen planifikazioa egiteko eskaera amankomunazgoari egitea, herritarrok garelako geure herrian zer behar dugun dakigunak eta bertatik eraman behar delako herrirako izan daitekeenaren planifikazio proposamena, beste herrien proposamenarekin uztartu eta amankomunazgotik kudeatu ahal izateko behar dugun hori.

Taldekieen ustez, herritarrentzat onura nondik etorriko den da garrantzitsuena.

Guzti hau martxoaren 11ko amankomunazgoko batzorde informatzailera eramango da eta amankomunazgoko langile guztieri ere bai. Epe bat emango zaie aztertzeke eta bien bitartean, gure batzorde kide guztiek ere aukera izango dute hurrengo batzordera arte, hau aztertzeke eta dauzkaten zalantzak zein proposamenak aurkeztu ahal izateko.

Hau dela eta, apirilerako egingo zaiela hurrengo batzorderako deialdia.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

4.- Antiguako Amak datozen hilabeteetan izango dituen ekitaldiei buruzko datuak : apirilak 28-29 eta 30ean Kontsumo Bide Jardunaldiak.
Apirilak 29an, Zahartze Aktiboaren Nazioarteko Eguna.

5.- Ez da ezer gehitu galdera eskaeretan.

Arratsaldeko 20:45etan bukatu da batzarra. Hurrengo bilera apirilean izango da eta betiko orduan.
Eguna zehazteke geratu da.

Ondarroan, 2014ko martxoaren 11an